

BEZEROZEROEKIN HARREMANA

Gure enpresak bezeroak erakartzeko egingo lukeen lehenengo gauza izango litzateke hilabete batez gure enpresaren iragarki bat ordaintzea, telebistaren bidez transmitituko litzatekeena. Iragarkiak gure makinak erakutsiko lituzke eta gure gizartean ekarriko lituzketen hobekuntzak azalduko lituzke, hau da, merkeagoak eta ekologikoagoak izango lirateke. Era berean, pertsona bakoitzak erabili ahal izateko bere oinarria nola eraman behar duen eta non kokatuta dauden ere azalduko luke.

Aurrerago, gure bezeroei konfiantza emateko, web-orri bat MIKmakinak.com izenkoa egingo genuke, interesa duen edonork jakin dezan nola funtzionatzen dugun, eta kexa edo proposamenen bat aipatu nahi badigute, webgunearen bidez egin dezanten.

Gure bezeroak lortzen ditugunean, inoiz huts egin ez dezaten ahaleginduko genuke, hau da, makinak inoiz ez daitezen geratu edozein likiduren eskuragarritasunik gabe, eta, horrez gain, 24 orduz irekita eduki beharko genituen, bezeroek une oro gure likido guztiak erabili ahal izan ditzaten. Era berean, gure lokalak garbi eta moderno mantenduko ditugu, itxura ona emateko guztien begietara.